

## Hiribus zerbitzu eta ibilgailu berria estreinatuko ditu Andoaingo herriak datorren astelehenetik aurrera

- Ibilgailu berria handiagoa izango da eta plaza gehiago eskainiko ditu, baita espazio handiago ere haur orgatxo eta gurpil-aulkientzat ere.
- Hiribusaren ibilbidea zabalagoa izango da, eremu gehiagotara iritsiko delako.

**Andoainen, 24-05-23.-** Datorren astelehenetik aurrera Hiribus zerbitzu eta ibilgailu berria estreinatuko du Andoaingo Udalak. Zerbitzu berriak hainbat berrikuntza eskainiko ditu:

### **Ibilgailu berria:**

-Hiribus zerbitzuab eskainiko duen ibilgailua berria izango da, handiagoa eta plaza gehiagorekin (60 plaza guztira, 21 eserita eta 39 zutik). Haur orgatxoentzako eta gurpil-aulkietarako espazio nahiko izango du ibilgailu berriak, orain arte zuenaren bikoitza.

-Mugikortasun arazoak izan ditzaketen pertsonentzat egokia izango da, plataforma mugikorra izango duena.

-Ibilgailu hibridoa izango da.

Halaber, **zerbitzuan ere zenbait hobekuntza** egin dira:

-Hiribusak egingo duen ibilbidea handiagoa izango da eta eremu gehiagotara iritsiko da.

-Geltokiak egokituko dira apurka pertsona guztiek erabiltzeko moduan izan daitezen, baita mugikortasun arazoak izan ditzaketen pertsonak ere. Lan hau herriko Akezible taldearekin batera landu da.

Udalak herritarrak animatu nahi ditu Hiribus zerbitzua baliatzera, ingurumenari mesede egin eta herri jasangarriago bat eskuratzeko bidean guztiok gure aletxo jar dezagun.

